

## **AURKIBIDEA**

- 1.-SARRERA**
- 2.- DEIALDIAREN HELBURUAK**
- 3.-MUSIKA BULEGOREN HELBURUAK**
- 4.- DEIALDIAREN XEHETASUNAK**
- 5.- XEHETASUN EKONOMIKOAK**
- 6.- BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 7.- LANKIDETZA HITZARMENA**

## 1.-SARRERA

Ekainaren 21ean, Musikaren Europako eguna ospatzen da. Ospakizun honen jatorria Frantzia bilatu behar da, bertan sortu zen duela 40 urte, kale eta plaza nagusiak estilo guztietako soinuekin betez.

Testuinguru honetan, Musika Bulegoak, Euskal Herrian musika ozenago entzuteko, **musika kontsumoa sustatu dezaketen jarduera eta ekintza ezberdinak** bultzatzeko xedearekin elkartearen helburuekin bat datorren deialdia prestatu du.

## 2. DEIALDIAREN HELBURUAK

Deialdi honen helburu nagusiak hurrengoak dira:

- Euskal Herriko **musika sektorea sustatzea**
- **Musika gizartera hurbiltzea**, hots, **musikarekiko duen sentsibilizazioa indartzea**.
- Musika arloan **euskararen presentzia bultzatzea**
- **Eragileen arteko elkarlana sustatzea**

## 3. MUSIKA BULEGOAREN HELBURUAK

Hurrengo lau helburu nagusiak ditu Elkarteak:

- Euskal Herriko Musika bere aniztasun osoan babestea eta indartzea
- Musikaren sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea babestea eta zabaltzea
- Musikarekiko ezagutza, prestakuntza, zaletasuna eta sentsibilizazioa bultzatzea.
- Euskarazko musika babestea eta zabaltzea.

#### **4. DEIALDIAREN XEHETASUNAK**

- **Eskatzaileak**; Pertsona fisiko eta juridikoak (irabazi -asmorik gabeak barne), (publikoak) eta pribatuak, Euskal Herriko eremuan egoitza dutenak (EAE, Nafarroa eta Iparralde), eta musika arloari lotuak daudenak. Jarduera ekonomikoan eta gizarte segurantzian alta emanda egotea derrigorrezkoa izango da.

-**Exekuzio garaia**: Ekintzak ekainaren 17ko astean zehar burutu beharko dira, Musikaren Egunaren bueltan (ekainaren 21).

-**Proposamenak aurkezteko epea**: Apirilaren 12ra arte (barne).

-**Proposamenen aurkezpena**: Proposamenak hurrengo helbidera bidali beharko dira [proiektuak@musikabulegoa.eus](mailto:proiektuak@musikabulegoa.eus) eta hurrengo puntuak jaso beharko ditu:

- Eskatzailearen profila eta ibilbidea (gehienez orri bat)
- Proiektuaren definizioa: publiko xedea, helburuak, edukierak eta elkarlana (balego), balorazio irizpideak ere aurreikusi behar dira
- Proiektuaren ekoizpena: Kronograma eta garapen plana
- Proiektuaren aurrekontua

- **Balizko ekintzak**: Zuzeneko kontzertuak, mahai inguruak, hitzaldiak, sentsibilizazio ekintzak, erakusketak....Beti ere Musika Bulegoaren eta deialdi honen helburuekin bat badator.

## 5. XEHETASUN EKONOMIKOAK

**-Deialdiaren aurrekontua:** Deialdi honen aurrekontu orokorra 15.000€ (BEZ-a barne)koa da.

**-Aurkeztutako ekintzen aurrekontua:** Gehienez aurrekontuaren %80a finantzatuko da, gainontzekoa eskatzaileak bere gain hartu beharko du.

**-Bateragarritasuna beste laguntza/babesletza batzuekin:** Bateragarria izango da baldin eta gain finantzaketa ez badago. Aurkeztutako aurrekontuan bestelako diru-iturriak adierazi beharko dira.

**-Diruz lagunduko diren gastu motak:** Jardueraren izaerara lotutakoak.

- Koordinazio gastuei dagokionez gehienez aurrekontu osoaren %30a

**-Diruz lagunduko ez diren gastu motak:** Inbertsio gastuak eta BEZ kengarria.

## 6.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- **Proiektuaren kalitatea:** egitasmoaren egokitasuna, edukiera, plangintza, eta garapen zehaztasuna. Halaber, aurrekontuaren xehetasun eta bideragarritasun maila kontuan hartuko da. Jardueraren promozio eta zabalkunderako planaren egokitasuna barneratuz . (50 puntu)
- **Euskararen** presentzia jardueretan (20 puntu)
- **Berdintasun ikuspegia** izatea (15 puntu)
- Eragile ezberdinen arteko **elkarlana** (15 puntu)

## 7.- LANKIDETZA HITZARMENA

Musika Bulegoak lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko du esleituak diren eragileekin.

Laguntzaren %60a esleitzen denean eta hitzarmena sinatu ondoren emango da, gainontzekoa, %40a, behin ekintza bukatu ostean eta justifikatuta dagoenean ordainduko da (memoria eta behin betiko balantzea). Nolanahi ere, 2024ko abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da. Ez aurkezteak diru-laguntza guztiaren itzulera suposatuko du.

Jakinarazpena egin eta 10 egun baliadun epean hitzarmena sinatzen ez bada, eta beti ere laguntzaren onuradunari egotzi dakioken arrazoiren batengatik bada, uko egin diola ulertuko da.

Azken memorian laguntzaren xedea justifikatu beharko da. Ekintzaren garapenaz aparte, egindako gastuak eta ekimena garatzeko diru-sarrerak adierazi beharko dira. Hasiera batean ez dira fakturak eskatuko baina Musika Bulegoak beharrezana ikusten badu, horrela egiteko gaitasuna izango du.

Eragileak aurkeztutako justifikazio memoria berrikusi ondoren, Musika Bulegoak aurkeztutako proiektua bere horretan ez duela garatu ikusten badu edo ezarritako baldintzak bete ez dituela ziurtatzen badu, diru-laguntza berrikusi eta onuradunari hura bere osotasunean edo zati batean eskatuarazteko eskubidea izango du.

Komunikazioa. Kolaboratzailea eta Musika Bulegoa emanaldien hedapenean lankidetzan arituko dira, euskarri eta bakoitzaren webguneetan lankidetzaren aipamena eginez (logoa txertatuz), baita sare sozialetan ere.

Bi aldeek dagokien logotipoen aplikazio grafikoaren araudia errespetatzeko konpromezua hartzen dute.

Komunikazio-estrategia alde bien artean adostuko dute; hala ere, bete beharrekoa izango da proiektu honen online eta offline komunikazio eta euskarri guztietan bi erakunde parte-hartzaileak aipatzea, eta euren logotipoak txertatzea.